HITZARMEN KOLEKTIBOA (2016-2019)

TESTU ERRAZA

Hitzarmen kolektiboaren bertsio hau erraz irakurtzeko modukoa da, ahalik eta pertsona gehienek ulertzeko eta erabiltzeko prestatu da eta.

Testu honen interpretazioak desadostasunen bat sortzen badu, INDESA 2010 SLren Negoziazio Mahaiak sinatutako hitzarmenaren jatorrizko bertsioa aplikatuko da.

AURKIBIDEA

1: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Eremu pertsonala, eremu funtzionala eta lurralde eremua.
2. artikulua. Indarraldia, eta salatzeko modua eta baldintzak.
3. artikulua. Batzorde Paritarioa eta beraren eskurantzak.
4. artikulua. Irenspena eta konpentsazioa.
5. artikulua. Langileen bermea.
6. artikulua. Osotasuna.
7. artikulua. Ordezko arauak.
8. artikulua. Lanbide sailkapenaren sistema.
9. artikulua. Lanbide sustapena.
10. artikulua. Mugikortasuna: funtzionala eta zentroen artean.

2: ORDAINSARIAK

11. artikulua. Soldata.
12. artikulua. Soldataren osagarri pertsonala.
13. artikulua. Igandeetan edo jaiegunetan lan egiteagatik kobratuko dena.
14. artikulua. Ibilgailu bereziak gidatzeagatik kobratuko den plusa.
15. artikulua. Gaueko lanaren plusa.
16. artikulua. Aparteko ordainsariak; oporretako ordainsariak.
17. artikulua. Aurrerakinak.
18. artikulua. Produktibitate ordainsaria.

3: GIZARTE ARRETA

19. artikulua. Langileen otorduak.
20. artikulua. Laneko jantziak.
21. artikulua. Aldi baterako ezintasunagatik kobratuko den osagarria.
22. artikulua. Enpresa batzordeentzako laguntza.

23. artikulua. Gaueko garraiorako laguntza.

4: LAN EGUTEGIA

24. artikulua. Lan orduak.
25. artikulua. Oporrak.
26. artikulua. Lan egutegia.
27. artikulua. Lizentziak, baimenak eta eszedentziak.

5: DENETARIKO XEDAPENAK

28. artikulua. Probaldia eta egokitzeko aldia.
29. artikulua. Aparteko orduak.
31. artikulua. Laneko segurtasun eta osasun batzordea.
32. artikulua. Hutsegiteak eta zehapenak.
33. artikulua. Txanda kontratua.
34. artikulua. Etengabeko prestakuntza.
35. artikulua. Emakumeen enplegua sustatzea.
36. artikulua. Euskararen sustapena.
37. artikulua. Enpleguko pentsio plana.
38. artikulua. Osasun arreta osagarria.
39. artikulua. Ikasteko bekak eta laguntzak.
40. artikulua. Bizi eta istripu asegurua.

1: XEDAPEN OROKORRAK

Kapitulu honetan ezartzen da nortzuei aplikatzen zaie INDESAko hitzarmen kolektiboa, enpresaren lan zentroak arautzen dira eta Zuzendaritza eta Enpresa Batzordea bat ez datozenean nola jokatu behar den finkatzen da.

1. artikulua - Eremu pertsonala, eremu funtzionala eta lurralde eremua.

Hitzarmen kolektibo hau INDESA 2010 SLn lan egiten duten **pertsona guztientzat** da.

2. artikulua - Indarraldia, eta salatzeko modua eta baldintzak.

Hitzarmen kolektibo hau **2016ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean**.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera beste hitzarmen kolektibo bat negoziatuko da. Beste bat onartu arte hauxe aplikatuko da.

3. artikulua - Batzorde Paritarioa eta beraren eskurantzak.

Batzorde Paritarioan enpresa eta INDESAko langileen ordezkariak aritzen dira. Hitzarmen hau aplikatzeko eta beraren inguruko zalantzak argitzeko biltzen dira.

Batzordeak bi atal dauzka:

Enpresaren atala eta **Atal soziala**.

- **Enpresaren atala**:
    - Enpresako zuzendari kudeatzailea
    - Arlo zuzendariak.

- **Atala soziala**:

  Sindikatu bakoitzaren ordezkari bat (aholkulariak erabil daitezke; hauek hitz egin dezakete, baina botorik eman ez).

Batzorde Paritarioa **3 hiletik behin bildu ohi da.**

4. artikulua - Irenspena eta konpentsazioa.

Hitzarmen honetako **baldintza ekonomikoak INDESAn lan egiten duten pertsona guztientzat dira**.

Hitzarmenean egiten den aldaketaren batek kalte egiten badio zure soldatari, INDESAk ez du aplikatuko.

5. artikulua – Langileen bermea.

INDESAk langileek hitzarmen hau indarrean ipini aurretik dauzkaten baldintza guztiak errespetatuko ditu.

6. artikulua - Osotasuna.

Hitzarmen honetako artikulu guztiak INDESAn lanean ari diren pertsona guztiei aplikatuko zaizkie. Hitzarmena **osorik aplikatu behar da.**

7. artikulua - Ordezko arauak.

Auziren bat ezin bada konpondu hitzarmen honetan ezartzen denaren arabera, **Langileen Estatutuak** dioena aplikatuko da.

8. artikulua - Lanbide sailkapenaren sistema.

INDESAn lanean ari diren pertsona guztiak sailkapen honetako taldeetako batean daude:

- **Kudeatzaileak** (zuzentzen, plangintzan, kontrolatzen eta antolatzen aritzen dira):
    - Arlo zuzendariak.
    - Arloburuak.
    - Tailerreko burua.

- Arloko **teknikariak** (lan teknikoak egiten dituzte eta informazioa ematen diete arduradunei):
    - Psikologoa.
    - Gizarte langilea.
    - Administrazio/kontabilitateko teknikaria.
    - Prebentzioko teknikaria.
    - Langileria teknikaria.

- Langile prestatzailea.
- Orientazio eta enpleguko teknikaria.

- **Administrariak eta laguntzaileak** (bulegoko lanak egiten dituzte): - Administraria.

- **Zuzeneko langileak**:

Arduraduna →
- Arloa –Orokorra A, B eta C.
- Atala: A, B eta C.
- Taldea.

Behargina →
- Kalifikatua A eta B.
- Espezialista A eta B.
- Zuzenekoa A eta B.

<u>Arduradunen egitekoak</u>:
Beharginen lana gainikusten eta koordinatzen dute, lanean laguntzen diete eta haien lanetan parte hartzen dute. INDESAn hasten diren langile berriei integratzen lagunduko diete.

<u>Beharginen egitekoak</u>:
Produkzio-lanak zuzenean egiten dituzte edo arduradunen gainikuspenarekin eta laguntzarekin lan egiten dute.

9. artikulua – Lanbide sustapena.

Artikulu honetan azaltzen da zer gertatu behar den langileak goiko kategoriara igotzeko edo behekora jaisteko.

- **<u>ZUZENEKO BEHARGINA</u>:**

IGO: Zuzeneko behargina B ⇨ Zuzeneko behargina A

Horretarako **70 puntu edo gehiago eduki behar dira 12 hilabetez** jarraian Balorazio Tresnan. Balorazioa **sei hiletik behin** egingo da; emaitzen berri emango zaie langileei eta Batzordeari.

JAITSI: Zuzeneko behargina A ⇨ Zuzeneko behargina B

Horretarako **60 puntu baino gutxiago eduki behar dira 12 hilabetez** jarraian Balorazio Tresnan.
Balorazioa **sei hiletik behin** egingo da; emaitzen berri emango zaie langileei eta Batzordeari.

- **<u>BEHARGINA ESPEZIALISTA</u>:**

IGO: Behargin **espezialista B ⇨ Espezialista A**

Horretarako **90 puntu edo gehiago eduki behar dira 12 hilabetez** jarraian Balorazio Tresnan.

Balorazioa **sei hiletik behin** egingo da; emaitzen berri emango zaie langileei eta Batzordeari.

JAITSI: Behargin **espezialista A ⇨ Espezialista B**

Horretarako **90 puntu baino gutxiago eduki behar dira 12 hilabetez** jarraian Balorazio Ebaluazioan.

Balorazioa **sei hiletik behin** egingo da; emaitzen berri emango zaie langileei eta batzordeari.

- **<u>ZUZENEKO BEHARGINA kategoriatik BEHARGIN ESPEZIALISTA kategoriara</u>:**

IGO: Zuzeneko behargina A ⇨ Behargin espezialista B

Igoera honetarako baldintza hauek bete behar dira: **18 hilabete eman behar dituzu maila berean**, frogatu behar duzu zeure egitekoak zeure kabuz egiteko gauza zarela eta horren ardura har dezakezula, eta ondo eta asko lan egin behar duzu.

Maila igoera honetarako urtero zuzendari kudeatzaileak ezartzen dituen proba batzuk gainditu behar dira; hona:
(probetako bat edo biak gainditu daitezke)

- Arduradunen txostenak: kopuruak, kalitatea, autonomia, lanerako prestutasuna, eta abar.
- Behar diren proba teorikoak eta praktikoak.

Arloko zuzendariak, psikologoak, arloburuak edo arduradunek kategoria berrira igotzea baloratuko dute eta emaitzaren berri emango diete probetan parte hartu dutenei eta enpresa batzordeari.

- **<u>BEHARGIN KALIFIKATUAK</u>:**

INDESAk kategoria honetara **igotzeko deialdiak** egingo ditu beharrezkoa dela uste duenean.

Deialdiak enpresa batzordeari jakinaraziko dizkio.

- **<u>TALDE ARDURADUNAK</u>:**

Enpresak **deialdiak** egiten ditu **talde arduradunak** hautatzeko.
Deialdi horietara INDESAn **behargin espezialistaren** edo **behargin kalifikatuaren** kategorian lanean gutxienez urtebete eman dutenak aurkez daitezke.
Deialdiak lan zentro guztietako **iragarki oholetan** ezarriko dira **15 egun** lehenago, gutxienez.

- **<u>HAUTAPEN ARDURADUNAK C MAILA</u>:**

Hautapen arduradun izateko **deialdietara** INDESAN **talde arduradun** modura lanean gutxienez **urtebete** eman dutenak aurkez daitezke.

Deialdiak lan zentro guztietako **iragarki oholetan** ezarriko dira **15 egun** lehenago, gutxienez.

Deialdi bakoitzean Zuzendaritzak **hautapen organo teknikoa** izendatuko du; organo horretan enpresa batzordearen ordezkari bat egon daiteke, hitz egiteko eskubidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe.

Hautapen prozesuan (azterketak, merezimenduak, probak eta hautapen irizpideak) honako hauek baloratuko dira:

- Langileak nola egin duen lan dagoen kategorian.

- Lortu duen prestakuntza.
- Esperientzia.
- Lanposturako egokia den (proba psikoteknikoak / nortasuna).
- Ezartzen diren gainerako probak.

Enpresaren Zuzendaritzak **goragoko kategoria** batera igo ahal zaitu **6 hilabeterako**, lanposturen bat bete behar denean bajagatik edo oporrengatik; aldi horretan kategoria horretako soldata ordainduko dizu.

Igoera horien berri emango zaie enpresa batzordeari.

10. artikulua - Mugikortasuna: funtzionala eta zentroen artean.

Langileen egitekoak (funtzioak) eta lan zentroak aldatu ahal izango dira. Enpresak beti errespetatuko du **langilearekin sinatutako akordioa, bai eta beraren kategoria ere.**

Langileak lan zentroa aldatzeko eskatu ahal du arrazoi medikuengatik, familia arrazoiengatik edota arrazoi pertsonalengatik.

INDESAk epealdiak zabalduko ditu lan zentroa aldatzeko eskaerak aurkezteko. Probak egingo dira eskatutako zentro aldaketa emateko edo ukatzeko.

Epealdiak iragarki oholetan agertuko dira, eta enpresa batzordeari jakinaraziko zaizkio.

2. KAPITULUA: ORDAINSARIAK

Kapitulu honetako gaia **nomina** da, hau da, langileen soldata azaltzen duen dokumentua.

11. artikulua – Soldata.

Urteko soldata **14 ordainketatan** kobratzen da.
Hilean ordainketa bat egiten da eta ekainean eta azaroaren aparteko beste bi egoten dira.

KUDEATZAILEAK	**2017 / EUROAK**	**2017 / EUROAK HILEAN**
ARLO ZUZENDARIAK	48.964,80	3.497,49
ARLOBURUAK	39.783,90	2.841,71
TAILERREKO BURUAK	33.663,30	2.404,52

ARLOKO TEKNIKARIAK	**2017 / EUROAK**	**2017 / EUROAK HILEAN**
PSIKOLOGOA	27.542,70	1.967,34
GIZARTE LANGILEA	25.502,50	1.821,61
LANGILERIA ADMINISTRARIA	27.542,70	1.967,34
PREBENTZIOKO TEKNIKARIA	27.542,70	1.967,34
KONTABILITATEKO TEKNIKARIA	25.502,50	1.821,61
LANGILE PRESTATZAILEA	21.422,10	1.530,15
ARLOKO TEKNIKARIA	25.502,50	1.821,61

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAK	**2017 / EUROAK**	**2017 / EUROAK HILEAN**
ADMINISTRARI BURUA	20.402,00	1.457,29
ADMINISTRARIA	17.341,70	1.238,69

ZUZENEKO BEHARGINAK	**2017 / EUROAK**	**2017 / EUROAK**

		HILEAN
ARDURADUNA A ARLOA	30.603,00	2.185,93
ARDURADUNA B ARLOA	29.072,85	2.076,63
ARDURADUNA C ARLOA	27.542,70	1.967,34
ARDURADUNA A ATALA	26.149,24	1.867,80
ARDURADUNA B ATALA	22.179,01	1.584,22
ARDURADUNA C ATALA	20.912,05	1.493,72
TALDE ARDURADUNA	19.845,17	1.418,15
BEHARGIN KALIFIKATUA A	16.831,65	1.202,26
BEHARGIN KALIFIKATUA B	16.033,76	1.145,27
BEHARGINA ESPEZIALISTA A	13.267,74	947,69
BEHARGINA ESPEZIALISTA B	12.480,75	891,49
ZUZENEKO BEHARGINA A	11.538,46	824,18
ZUZENEKO BEHARGINA B	10.250,91	732,21

Soldata horiek **lansaio osoarekin** ari direnentzat dira.
Lansaio murriztua dutenei murrizketa horren proportzioan txikituko zaie soldata.

2018ko eta 2019ko soldaten igoera Aldundiak eta Indesak adostuko dute.

Diziplina anitzeko taldeak beharrezkotzat joz gero, enpresak **errendimendu txikiko kontratuak** egin ahal izango ditu legez ezartzen denarekin bat etorriz eta legerian finkatzen duen murrizketarekin.

12. artikulua - Soldataren osagarri pertsonala.

Hitzarmenean arautzen ez den zerbaitengatik kobratzen baduzu (antzinatasuna, esaterako), osagarri pertsonal modura ezarriko da nominan, eta gainerako guztiaren urteko igoera bera aplikatuko zaio.

13. artikulua - Igandeetan edo jaiegunetan lan egiteagatik kobratuko dena.

Igande edo jaiegun batean lan egiteagatik **42,84 euro** kobratuko dira.

Abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a jaiegun bereziak dira. Egun horietako bakoitzean lan egiteagatik **51 euro** kobratuko dira.

Kopuru horiek lansaio osokoak dira. Lansaio osoa lan egin ezean, lan egindako denboraren araberako kopurua kobratuko da.

Kopuru hauei soldataren urteko igoera bera aplikatuko zaie.

14. artikulua - Ibilgailu bereziak gidatzeagatik kobratuko den plusa.

Lanean **ibilgailu berezirik** (kamioiak, atoiak, eta abar) gidatu behar baduzu, plusa kobratuko duzu: **42, 84 euro hilean**.

Kopuru honi soldataren urteko igoera bera aplikatuko zaio.

15. artikulua – Gaueko lanaren plusa.

Gauez (22:00 – 06:00) **lan eginez gero**, lanean egiten den orduko **ordubete eta 20 minutu** zenbatuko dira; horren konpentsazioa atsedenaldia izango da.

Zentroan **jarduera bereziren bat** badago (Gauekoak, GHP, hauteskundeak...) eta lanez gainezka egonik plantilla gehitzen ez bada, **10,20 euro** gehiago kobratuko dituzu lanegun bakoitzeko.

16. artikulua - Aparteko ordainsariak; oporretako ordainsariak.

<u>Aparteko ordainsariak</u>:
Urtean **bi aparteko ordainsari** daude, bata **ekainean** eta bestea **azaroan**. Gaixotasunagatik edo istripuagatik gertatzen diren bajak deskontatzen ordainsari horietatik.

<u>Oporretako ordainsaria</u>:
Oporretan zauden hilean kobratzen da.

17. artikulua – Aurrerakinak.

Soldataren zati bat aurreratzeko eska dezakezu, **erdia gehienez**. Aurrerakina lau aldiz eska daiteke urtean gehienez; aurreratzen den dirua hurrengo soldatatik kenduko da.

Aurrerakinaren **eskaera idatziz egin behar da** astebete lehenago.

18. artikulua – Produktibitate ordainsaria.

Produktibitate ordainsaria lehengo jardunaren ebaluazioaren ordainsariaren ordezkoa da. 2018an 205.000 euro egongo dira urte osoan lan egiten duten langile guztien artean banatzeko; mozkinik egonez gero, kopurua gehituko da.

Ordainsari hau osorik kobratzeko lan osoan egin behar da lan, hau da, ezin da bajarik hartu urtean zehar. Urtarrilean ordainduko da beti.

Urtarrilean kobratzen den kopurua langileak aurreko urtean izan dituen bajen araberakoa izango da.

3. KAPITULUA: GIZARTE ARRETA

19. artikulua - Langileen otorduak.

Lan zentroan jantokirik badago, bertako zerbitzua eskatu eta erabili ahal duzu. **Otordu** bakoitzeko janariaren prezioa **3,75 euro** izango da.

INDESAk erabakiko ditu ordutegiak, menuak eta gainerako inguruabar guztiak. 2018an eta 2019an soldataren igoera bera aplikazio zaio prezio honi.

20. artikulua - Laneko jantziak.

INDESAk lanerako behar dituzun laneko jantzi guztiak emango dizkizu. Gutxienez **bi uniforme oso** eduki behar dituzu.

INDESAk jantzi berriak emango dizkizu behar dituzun bakoitzean; zuk erabilitako edo apurtutako jantziak ekarri beharko dituzu.

21. artikulua - Aldi baterako ezintasunagatik kobratuko den osagarria.

Laneko gaixotasuna edo istripua

Honelako kasuetan INDESAk osagarri bat ordainduko dizu, lan egindako azken hileko kopuru bera kobra dezazun. Bajak irauten duen 18 hiletan kobratuko da.

Gaixotasun arrunta edo lanekoa ez den istripua

Honelako kasuetan INDESAk osagarri bat ordainduko dizu, lan egindako azken hileko kopuru bera kobra dezazun, honako hauek kontuan hartuz:

A) Aurreko urteko bajaren iraupena langileen batez bestekoa bera edo luzeagoa izan bada edo enpresan 6 hilabetetik behera lan egin baduzu:

- Bajan zauden **1. egunetik 3. egunera arte**: soldataren **% 55**.
- **4. egunetik 15. egunera arte**: soldataren **% 85**.
- **16. egunetik aurrera**: soldataren **% 100**.

B) Aurreko urtean 6 hilabete baino gehiago egin badituzu lanean eta zure baja langileen batez bestekoa baino laburragoa bada, **soldataren % 100 1. egunetik**.

22. artikulua - Enpresa batzordeentzako laguntza.

Batzordeko kidea bazara eta beste lan zentro batera joan behar baduzu batzarretara, INDESAk garraio publikoa ordainduko dizu (autobusa edo tranbia), eta janaria ere bai, batzarraren ordutegian gertatzen bada.

Garraio publikorik ez badago eta zeure autoan bazoaz batzarretara, INDESAk **0,30 euro** ordainduko dizkizu kilometroko.

23. artikulua - Gaueko garraiorako laguntza.

Gaueko garraiorako **40,84 euro emango dira hilean**. Kopuru hori kobratzeko honako kasu hauetako batean egon behar zara:

1 – Lan egutegiaren arabera **gaueko 22:00ak** baino **beranduago** amaitzen duzu lansaioa edo **goizeko 6:00ak** baino **lehenago** hasi behar zara lanean.

2 – Etxetik lan zentrora **kilometro bat** baino gehiago dago (hau ez zaie aplikatuko oinez joan ezin diren pertsonei).

3 – Enpresak ez du eskaintzen garraiorik.

Laguntza jaso nahi baduzu, eskaera aurkeztu behar diozu INDESAren Batzorde Paritarioari (INDESAren bi ordezkari eta langileen 2 ordezkari). Laguntzaren zenbatekoa lan egiten duzun denboraren proportziozkoa izango da; eskatzen duzun hiletik aurrera ordainduko zaizu.

2018 eta 2019ko igoera soldatarena bera izango da.

4. KAPITULUA: LAN EGUTEGIA

24. artikulua - Lan orduak.

2018ko urteko lan orduak **1.651** izango dira eta **2019koak 1.633**. Egunez eta gauez lan egin daiteke. Gaueko ordu bakoitzeko **ordubete eta 20 minutu** zenbatuko dira.

Egunean **6 ordu edo gehiago lan egiten baduzu, 20 minutuko atsedenaldia** har dezakezu **edo 30 minutuko etena egin bazkaltzeko**. Sakelako telefonoarekin eta erretzen ematen den denbora atsedenalditik kenduko da.

Urte osoan lan eginez gero, **norberaren aukerako 5 egun** hartu ahal izango dira. Halako egun bat hartu nahi duenak 10 egun arinago eskatu

behar du. Zerbitzua bermatuta badago, eskaera guztiak hartuko dira aintzat.

Lan berriek eta lan aldaketek laneko ordutegiak aldatu beharra ekar dezakete. Horrelakoetan, enpresa ados jarri behar da batzordearekin, eta ados jarri ondoren aldaketaren berri eman behar die lan jarduna aldatzen zaien pertsonei.

25. artikulua – Oporrak.

INDESAn **31 opor egun** daude urtean. lan zentro batzuk itxi egiten dira udan eta beste batzuk ez.

Lanean ari zaren zentroa udan ixten bada, **itxita dagoen aldian** hartu behar dituzu oporrak. Lanean ari zaren zentroa udan ixten ez bada, **ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean** hartu behar dituzu oporrak.

Enpresak beste hil batera pasatzen badizkizu oporrak, **egun bat gehiago emango dizu aldatzen dizun asteko.**

Oporrak beste noizbait hartu nahi izanez gero, Indesak erabakiko du har daitezkeen ala ez.

Oporrak hartzeko aldian bajan egonez gero, baja amaitu ondoren hartu ahal izango dira.

26. artikulua - Lan egutegia.

Urtero, **urria amaitu aurretik** INDESAk eta Batzordeak hurrengo urteko lan egutegia hitzartuko dute bilera batean.

Ados jartzen ez badira, INDESAk bere kabuz ezarriko du lan egutegia **abenduaren 1a baino lehen**.

Abenduaren 24an eta 31n zentroak arratsaldeko **8etan itxiko dira.** Enpresaren beharrizanak direla eta beranduago arte gelditu behar bazara lanean, **enpresak egun bat emango dizu, zeuk nahi duzunean hartzeko**.

27. artikulua - Lizentziak, baimenak eta eszedentziak.

1) - <u>Lizentziak</u>: Langileen eskubidea da.
(**10 egun lehenago** abisatu behar da **idatziz**).

<u>Lizentzia ezkontzeagatik edo izatezko bikotea sortzeagatik</u>
Ezkondu edo **izatezko bikotea** sortzen duen langileak **20 eguneko** lizentzia dauka (jarraian).
Langile baten gurasoak, senideak, seme-alabak, ilobak etab. ezkonduz gero, **ezkontza eguna** har daiteke.
Lizentzia hau urtean **behin bakarrik har daiteke ezkontideko**.

<u>Lizentzia semea/alaba jaiotzeagatik edo ahaide baten gaixotasun larriagatik edo heriotzagatik</u>
3 eguneko lizentzia har daiteke semea edo alaba jaiotzeagatik edo ahaide baten heriotzagatik edo istripu edo gaixotasun larriagatik (ospitalera).
Etxetik 60 kilometro baino urrunago joan behar izanez gero, lizentzia **4 egunekoa** izango da.
Egunak jarraian zein banaka har daitezke.

<u>Lizentzia medikuarenera joateko eta tratamenduak jasotzeko.</u>

Medikuarenera joateko behar den denbora har dezakezu, beharrezkoa dela frogatzen baduzu eta lan ordutegitik kanpo joan ezin baduzu.
Ezin dira hartu 4 ordu baino gehiago hilean, medikuak idatziz besterik ezarri ezean.

Medikuarenera lagundu ahal diezu seme-alabei, aitona-amonei, senideei, koinatu-koinatei eta bilobei: gehienez **4 ordu hilean**, beharrezkoa dela frogatuta.

Lizentzia ernalketa lagunduko probak eta tratamenduak egiteko.
Horrelako probak egiten ari diren langileek behar duten guztietan utz dezakete lana, eta behar duten denboran.

Lizentzia haurdunaldiko arriskuagatik.
Haurdun dauden langileek baja har dezakete legeriarekin bat etorriz, baldin eta egiten duten lana haurdunaldirako arriskutsua bada. Honelako bajetan soldataren **% 100 kobratuko da**.

Lizentzia aitatasunagatik.
Umea jaio edo adoptatuz gero, aitak **5 asteko lizentzia** har dezake jaiotzagatik har daitezkeen **3 egunak** igaro ondoren. Lizentzia hau urteko oporraldia gehitu ahal zaio.

Lizentzia adopzioagatik edo harreragatik.
6 urtera arteko adingabea adoptatzen duenak edo halako bati harrera egiten dionak **3 eguneko lizentzia** har dezake. Adingabeak desgaitasunen bat badauka, adingabe bati baino gehiagori egiten bazaie harrera, adingabea atzerritarra bada eta arazo soziala eta familiarra

badauka (gizarte zerbitzuek frogatuta), lizentziak **140 egun** iraun dezake, gehienez.

Jaiotzagatik lizentzia bera emango da. Adingabeak desgaitasunen bat badauka, adingabe bati baino gehiagori egiten bazaie harrera, adingabea atzerritarra bada eta arazo soziala eta familiarra badauka (gizarte zerbitzuek frogatuta), lizentziak **40 egun** iraun dezake, gehienez.

Langilea atzerrira joan behar bada adingabea adoptatzeko edo harrera egiteko, **2 hileko** lizentzia edukiko du; aldi horretan oinarrizko ordainsariak kobratuko ditu.

Lizentzia ohiko etxebizitza aldatzeagatik.
Etxebizitza batetik beste batera aldatuz gero, **egun bat** har daiteke.

Lizentzia nahitaezko betebehar publikoak eta pertsonalak betetzeko.
Langileek behar den iraupeneko lizentzia edukiko dute hauteskunde mahaietan eta antzekoetan aritzeko.

Lizentzia sindikatuen edo langileen ordezkari lanak egiteko.

Sindikatuetako lanak egiteko lizentziak legeriaren ezartzen denaren araberakoak izango dira.

Lizentzia errehabilitazio mediko-funtzionaleko tratamenduetarako.
Tratamendu medikoa ipintzen badizue lansaioan eta hitzordua aldatu ezin baduzu, horretarako lizentzia har dezakezu. Gehienez **10 egun 6 hileko bakoitzean**.

Lizentzia jaio aurreko azterketak egiteko eta erditzeko prestatzeko teknikak aplikatzeko.

Haurdun dauden langileek horiek guztiak egin ditzakete, lan ordutegitik kanpo egin ezin badituzte.

Lizentzia analisi medikoak egiteko.

Gaueko txandan ari bazara eta analisi bat egiteko hitzordua goizeko lehen orduan eman badizute, **gaueko 12etan** utzi ahal izango diozu lanari. Analisia frogatu beharko duzu.

Lizentzia lanpostuko egitekoekin lotura zuzena ez duten ikasketen azterketa akademikoak egiteko ikastetxe ofizialetan.

Lizentzia har daiteke ikasketetako azterketak egiteko, baina muga honekin: **2 egun irakasgaiko**.

Azterketa egiteko lekua **60 kilometro baino urrunago** badago, **2 egun gehiago har daitezke**.

Lansaioa murrizteko lizentzia ikasketa akademiko ofizialak egiteko.

Lansaioa **heren bat edo erdia** murriztu daiteke ikasketa akademikoak egiteko; matrikula eta asistentzia frogatu behar dira.

Murrizketak **2 urte** iraungo du **gehienez**; nolanahi ere, luzapena eman ahal izango da, ikastaroa gainditzen den ala ez.

Azterketetara aurkeztu ezean, murrizketa amaituko da.

Lizentzia funtzio publikoan sartzeko probak eta lan sustapeneko probak egiteko.

Oposizioetara aurkezten diren langileek lizentzia edukiko dute azterketak edo probak egiteko.

Lizentzia langileak familia barruan indarkeria jasateagatik.

Langile batek lanera huts egiten badu familia barruko indarkeriagatik, justifikatutzat joko da, baldin eta gizarte zerbitzuek frogatzen badute eta salaketa aurkeztu bada.

Indarkeria familiarra jasaten duten langileek eskubidea dute: lansaioa murrizteko, lan denbora berrantolatzeko, lan egutegia moldatzeko eta lan ordutegi malgua edukitzeko.

Lizentzia lanbidea orientatzeko eta egokitzeko ekintzetan eta lanerako prestatzeko ekintzetan aritzeko.

Lan egutegian egiten diren lanbide orientatzeko eta egokitzeko ekintzetan eta lanerako prestatzeko ekintzetan parte har dezakezu. Nolanahi ere, gehienez **10 egun har daitezke 6 hilabetean.**

Beste lizentzia batzuk.

Familia bizitza eta lana bateratzeko Legearen arabera langileek eskubidea dute lansaioa murrizteko umeen edoskitzaroan, adingabeen zaintza legalerako, ahaideak zaintzeko edo garai aurreko erditzeagatik.

2) - Baimenak: Enpresak eskatzen duten langileei ematen dien eskubidea da. Baimenak **15 egun lehenago** eskatu behar dira **idatziz**. Erantzuna **7 egunetan** emango da (baimena lanaren antolamenduaren arabera eman edo ukatuko da).

Baimena norberaren gauzetarako.

Gehienez **3 hilabeteko baimena** eska daiteke urtean, **baina kobratu gabe**. Eskaera **10 egun lehenago aurkeztu behar da**.

Baimena ikasketak, hautapen ikastaroak edo praktikak egiteko.

Baimena eskatu ahal duzu lanpostua hobetzeko ikastaroak egiteko; horrez gainera, horretarako lan ordutegia moldatzeko ere eskatu ahal duzu. Lanpostuarekin lotutako praktikak egiteko ere eskatu ahal duzu. Baimenaren iraupena ezin da izan ikasturtea baino luzeagoa.

Baimena batzarretarako.

INDESAko langileek batzarrak egin ditzakete enpresaren lan zentroetan, lanaren antolamenduak aukera ematen badu.

Baimena lansaioa murrizteko.

55 urtetik gorako langileek eska dezakete lansaioko orduak murrizteko **erdira edo heren edo laurden batera**. Lansaioaren murrizketak soldataren murrizketa ekarriko du.

Baimena kontratua eteteko lanpostua gordeta.

Legeriaren arabera langileek eskubidea dute kontratua aldi batez eteteko.

3)- Eszedentziak: Aldi batez lanik ez egitea kobratu gabe.
Nahitaezkoak edo borondatezkoak izan daitezke.

Nahitaezko eszedentzia

Langileari politikan jarduteko deitzen diotenean gertatzen da.
Gero, politika uzten denean, langilea bere lanpostura itzul daiteke.
Politikako lanari uzten zaion hilean eskatu behar da lanpostura itzultzea.

Eszedentzia honetan enpresak lanpostua gordetzen dio langileari eta antzinatasunak aurrera egiten du.

Borondatezko eszedentzia

Interes partikularragatik:
Urtebete lanean eman ondoren eszedentzia eska daiteke arrazoi pertsonalengatik. Eszedentziaren iraupena **3 hilabete eta 5 urte artekoa** izan behar da.

Eszedentzia batean egon ondoren **4 urtez egin behar da lan beste bat hartu ahal izateko**.

Eszedentzia sindikatu batean aritzeko probintzian edo goragoko esparruan.
Sindikatu bateko kidea bazara eta hark probintzian jarduteko hautatzen bazaitu, eszedentzia eskatu ahal izango duzu.
Amaitzen denean, hilabete pasatu baino lehen eskatu beharko duzu lehengo lanpostura itzultzeko.

Eszedentzia ahaideak zaintzeko.
Seme-alabak zaintzeko eszedentzia: umeak adoptatuak edo harrerakoak izan daitezke.
Gehienez **3 urte** iraun dezake; **aldika** erabil daiteke.

Laguntza behar duten gurasoak, senideak, aitona-amonak edo bilobak zaintzeko eszedentzia: gehienez **2 urte** iraun dezake; **aldika** erabil daiteke.
Bi pertsonak edo gehiagok eszedentzia bera eskatzen badute, INDESAk erabakiko du zer egin.

Eszedentzia markatu arrunteko lanpostu batean aritzeko.
Desgaitasuna onartuta badaukazu eta INDESAn **urtebete** eman baduzu lanean, eszedentzia eskatu ahal duzu lanpostu arrunt batean aritzeko. INDESAk gutxienez 3 urtez gordeko dizu lanpostua eta bestea amaitutakoan atzera bertara itzuli ahal izango zara.

Eszedentzia genero indarkeriagatik.
Genero indarkeria jasaten duten langileek eskubidea dute egoera konpontzeko eszedentzia eskatzeko; **gutxienez 6 hilekoa** izango da eta lanpostua gordeko da.
Lehen bi hiletan soldata osoa kobratuko da.

4)- Lansaioa hasteko eta amaitzeko malgutasuna, lana eta familia bizitza bateratu ahal izateko:

Ahaide bati lagundu behar izanez gero:

- Mugitzeko arazoak dauzkan ahaidea.
- Gaixotasun larria daukan ahaidea (txosten medikoa behar da).
- Mendetasuna onartuta daukan ahaidea.
- 12 urtetik beherako ahaidea.

Gehienez **ordubete eta erdi** atzeratu ahal duzu lansaioaren hasiera.
Idatziz eskatu behar zaio arloko arduradunari, hilabete lehenago.
Enpresak lanaren antolamenduaren arabera onartuko du malgutasuna.

5. KAPITULUA: DENETARIKO XEDAPENAK

28. artikulua - Probaldia eta egokitzeko aldia.

INDESAn lanean hasten direnei **6 hilera arteko probaldia** ezarri ahal izango zaie lanpostuan zer egin behar duten ikasteko.

Probaldia gainditu ezean, INDESAk **astebete aurretik** jakinaraziko dio langileari.

29. artikulua - Aparteko orduak.

INDESAn **EZIN DA egin aparteko ordurik**.
Hala ere, ezinbestekoa denean, langileek onartu ahal izango dute **lan egindako aparteko orduko 2 orduko atsedenaldia ematea**.

Aparteko lan orduak **jaiegun batean edo gauez** eginez gero, ordu bakoitzeko **2 ordu eta erdiko** atsedenaldia hartu ahal izango da.

30. artikulua – Osasunaren zaintza.

Laneko arriskuen prebentzioaren Legeak agintzen duen bezala, INDESAko langileek **mediku azterketak** egiteko eskubidea dute (horixe da prebentzio zerbitzuaren lana).

31. artikulua – Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordea.

Batzorde honen egitekoak Laneko arriskuen prebentzioaren Legean eta berariaz ezartzen den arautegian finkatzen dira.

32. artikulua - Hutsegiteak eta zehapenak.

<u>Hutsegiteak eta zehapenak</u>

Hutsegiteak **arinak, larriak eta oso larriak** izan daitezke, eta zehapenak ere bai.

Hutsegite arinak:

- Hilean **1 - 3 aldiz huts egitea puntualtasunean** eta ez abisatzea.
- E**z abisatzea lanera huts egingo dela** medikuarenera joateko.
- **Ez ematea bajaren berri 3 egun pasatu baino lehen,** ezinbestean gertatu ezean.
- **Lanpostutik alde egitea** abisatu gabe.
- Materiala, tresnak edo instalazioak zabarkeriarekin erabiltzea eta narriatzea.
- **Ez edukitzea soinean laneko jantziak** lanpostuan.
- **Egun batean lanera ez joatea eta** hil berean **ez abisatzea**.
- Ordena eta diziplina ez errespetatzea, eta lankideekin **liskarrak edo ika-mika edukitzea**.

Arloburuek honako **zehapen** hauek ezar ditzakete hutsegite horiengatik:

- Agiraka **ahoz.**
- Agiraka **idatziz.**
- Etxera bidali **2 egunetarako soldatarik gabe.**

Hutsegite larriak:

- Hilean **3tan baino gehiago huts egitea puntualtasunean**.
- Hilean **2 egunetan lanera ez joatea** arrazoirik eman gabe.
- **Denbora galtzea** edo lanari adi ez jardutea.
- Gaixotasun edo istripu **itxurak egitea**.
- **Buruak dioena ez egitea** laneko gaietan.
- Zuhur ez jokatzea eta ondorioz **lankideak istripu arriskuan jartzea**.
- Lanera **edari alkoholdunak** edo baimenduta ez daudenak eramatea.

- **Lanpostutik alde egitea** eta tailerretik edo zentrotik irtetea baimenik gabe.
- Lankideak **iraintzea edo mehatxatzea**.
- Hiruhileko batean zehapena ekarri duten **hainbat hutsegite arin** pilatzea (puntualtasunekoak ez bestelakoak).

INDESAko Zuzendaritzak honako **zehapen** hauek ezar ditzake hutsegite horiengatik:

- Etxera bidali **3 - 15 egunetarako soldatarik gabe**.
- **Beste lan zentro batera bidali**.

<u>Hutsegite oso larriak</u>:

- 6 hileko aldian **10 aldiz baino gehiago huts egitea puntualtasunean** arrazoirik eman gabe, edo **20 aldiz baino gehiago** urtean zehar.
- **5 egunetan lanera ez joatea abisatu gabe**, jarraian zein aldizka, edo **3 egunetan jarraian**.
- Tailerreko edo zentroko **lankideei lapurtzea**.
- Indesaren edo lan zentroko gauzak nahita **apurtzea edo narriatzea**.
- Lanera **mozkortuta** joatea.
- Lankideei edo buruei tratu txarrak ematea **hitzez edo egitez**.
- **Lan gutxi egitea** nahita.
- **Hiru hileko aldian** zehapena ekarri duten **hainbat hutsegite larri** egitea.
- Behin eta berriro **gaizki portatzea** eta ondorioz lan giroa zakartzea.

INDESAko Zuzendaritzak honako **zehapen** hauek ezar ditzake hutsegite horiengatik:

- Etxera bidali **16 - 60 egunetarako soldatarik gabe**.

- **Beste lan zentro batera** bidali.
- **Kaleratu.**

33. artikulua - Txanda kontratua.

Erretiro partziala (**65 urte bete aurretik**) eskatzeko behar den adina duten langileek horretarako behar diren baldintza guztiak betetzen badituzte, enpresak lagundu egingo die, eskaera aurkeztu ondoren.

34. artikulua – Etengabeko prestakuntza.

INDESAko langileek beren ezagutzak hobetzeko ikastaroak.

2017. urterako 17.000 euro daude honelako ikastaroetarako.
2018. urterako 18.000 euro daude honelako ikastaroetarako.
INDESAk langileak prestatzeko plana egingo du.
Planaren berri emango zaio Batzordeari.

Langileek urtean **20 orduko prestakuntza** jasotzeko eskubidea dute.

Ikastaroak aisialdian egin ezin dituzten langileek eskubidea dute horretarako laguntza jasotzeko, ahal denean.

INDESAk prestakuntzako ikastaroen gastuen berri eman behar die langile guztiei urtean bi aldiz.

35. artikulua - Emakumeen enplegua sustatzea.

INDESAk konpromisoa hartzen du emakumeak kontratatzea errazteko, eta enpresan ari diren emakumeek goragoko kategorietara igotzeko aukera edukitzeko.

INDESAk berdintasunerako plana egin eta onartuko du, eta lanean emakumeen eta gizonen artean diferentziarik ez egoteko arauak emango ditu.

36. artikulua - Euskararen sustapena.

Euskara jakitea mesedegarria da INDESAren zentroetan lan egiteko eta lanpostuetan gora egiteko.
INDESAk laguntza emango du euskara behar den lanpostuetan ari direnek euskara ikastaroak egiteko.

37. artikulua - Enpleguko pentsio plana.

INDESAk nahi duten langileak enpleguko pentsio planean sartzea sustatuko du.

38. artikulua - Osasun arreta osagarria.

INDESAk nahi duten langileak osasun arretako sistema osagarria sartzea sustatuko du.

39. artikulua - Ikasteko bekak eta laguntzak.

INDESAk urtero laguntza ekonomikoen deialdia egingo du langileen seme-alaben ikastetarako.

10.000 euro banatuko dira langileen artean.
INDESAk erabakiko du nola banatzen den diru kopuru hori.

40. artikulua – Bizi eta istripu asegurua.

INDESAk aseguru bat kontratatu du langile guztientzat; honako hauek estaltzen ditu:

Heriotza, arrazoi guztiengatik.....72.000 euro
Baliaezintasun handia istripuagatik.....72.000 euro
Ezintasun iraunkorra istripuagatik.....72.000 euro
Erabateko ezintasun iraunkorra istripuagatik.....45.000 euro